

8. *Eskaintzen aurkeztea*

- Aurkezteko azken eguna: Egutegiko 15 egun; lizitazioa iragarkia argitaratzen denetik zenbatuta
- Aurkeztu beharreko agiriak: Baldintzen pleguetan agertzen direnak.
- Agiriak aurkezteko tokia: Loiu Udal, Herriko plaza, 1. (48180).

9. *Eskaintza ekonomikoen irekiera*

- Lekua: Loiu Udal, Herriko plaza, 1 (48180).
- Eguna eta ordua: Proposamenak aurkezteko epearen azken egunetik zenbatuta zazpigarren egunean 08:30etan.

Loiu, 2015eko azaroaren 9an. — Alkatea, Josu Andoni Begoña Fernández Arroiabe

(II-6503)

8. *Presentación de las ofertas*

- Fecha límite de presentación: 15 días desde la publicación del anuncio
- Documentación a presentar: Detallada en el pliego de condiciones
- Lugar de presentación: Ayuntamiento de Loiu, Herriko plaza, 1 (48180).

9. *Apertura de las ofertas económicas*

- Lugar: Ayuntamiento de Loiu. Herriko plaza, 1 (48180)
- Fecha y hora: El séptimo día hábil tras el fin de plazo de presentación de ofertas, a las 08:30 horas.

En Loiu, a 9 de noviembre de 2015. — El Alcalde, Josu Andoni Begoña Fernández Arroiabe

(II-6503)

Larrabetzuko Udala**Larrabetzuko animalia arriskutsuen edukitza arautzen duen Ordenantza.**

Larrabetzuko Udalak 2015eko irailaren 30eko ohiko batzarrean behin-behineko izaeragaz, Larrabetzuko animalia arriskutsuen edukitza arautzen duen Ordenantza hasierako onarpena egin eban eta espediente 30 egunez jente-aurrean egon eta gero horri inolako alegaziorik egin barik, Toki Araubidearen Oinarri buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluarri jarraituz aitatutako akordioa behin betiko bihurtzen da eta testu osoa iragarki honetan I eranskin lez argitaratzen da.

Larrabetzun, 2015eko zemendiaren 13an. — Alkatea, Iñigo Gastelu Bilbao

I ERANSKINA

ARRISKUTSUAK IZAN DAITEKEZAN ANIMALIAK EUKITEA ARAUTZEN DAUEN UDAL ORDENANTZEA**1. artikulua. — Helburua**

Ordenantza honen helburua da arautzea arriskutsuak izan daitezkeen animaliak eukitea, Udalak emon beharreko baimen baten bitartez, beti be arautegi honeetan ezarritakoa betez: Arriskutsuak izan daitezkean Animalien Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen 3. artikuluan eta ha garatzen dauen erregelamenduan, martiaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuan (zemendiaren 30eko 1570/2007 Errege Dekretuak aldarazoa), eta batez be txakur arriskutsuen kasuan Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak eukiteari buruzko bagilaren 1eko 101/2004 Dekretuan.

Ordenantza hau aplikatuzetik kanpora geratzen dira indar armatu, Estaduko segurtasun kidego eta indar, autonomia erkidegoetako polizia, udaltzaingo eta baimen ofizialeko segurtasun enpresetako txakur eta animaliak, abenduaren 23ko 50/1999 Legeak xedatzen dauenaren arabera.

2. artikulua. — Aplikazio eremua

Ordenantza Larrabetzuko udal mugarte osoan izango da aplikagarri, eta pertsona fisiko edo juridiko guztiek bete beharko dabe eta udalerrian erroldatutako guztiei eragingo deutse.

3. artikulua. — Arriskutsuak izan daitezkean animaliak

Ordenantza honen ondorioetarako eta Arriskutsuak izan daitezkean Animalien Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen 2. artikuluan eta bagilaren 1eko 101/2004 Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoagaz bat, honako honeek hartu daitezke animalia arriskutsutzat:

Ayuntamiento de Larrabetzu**Ordenanza reguladora de la tenencia de animales potencialmente peligrosos de Larrabetzu.**

El Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria celebrada el día 30 de septiembre de 2015, con carácter provisional aprobó inicialmente la Ordenanza reguladora de la tenencia de animales potencialmente peligrosos de Larrabetzu, habiendo sido expuesta al público por un plazo de 30 días sin que se haya formulado alegación alguna, procede elevar dicho acuerdo a definitivo según lo establecido en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local y que se adjunta como anexo I al presente anuncio.

En Larrabetzu, a 13 de noviembre de 2015. — El Alcalde, Iñigo Gastelu Bilbao

ANEXO I

ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA TENENCIA DE ANIMALES POTENCIALMENTE PELIGROSOS**Artículo 1. — Objeto**

El objeto de la presente Ordenanza es la regulación de la tenencia de animales potencialmente peligrosos por la concesión de una licencia que otorgara el Ayuntamiento en cumplimiento de lo establecido en el artículo 3 de la Ley 50/1999, de 23 de diciembre, sobre el Régimen Jurídico de la Tenencia de Animales Potencialmente Peligrosos, y su Reglamento de desarrollo, por Real Decreto 287/2002, de 22 de marzo (modificado por el Real Decreto 1570/2007, de 30 de noviembre) y en el caso concreto de los perros peligrosos, el Decreto 101/2004, de 1 de junio, sobre Tenencia de Animales de la Especie Canina en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Quedan excluidos de la aplicación de esta Ordenanza los perros y animales pertenecientes a las Fuerzas Armadas, Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado, Cuerpos de Policía de las Comunidades Autónomas, Policía Local y empresas de seguridad con autorización oficial, tal y como dice la Ley 50/1999, de 23 de diciembre.

Artículo 2. — Ámbito de aplicación

La Ordenanza será de aplicación en todo el término municipal de Larrabetzu, deberá ser cumplida por toda persona física o jurídica, y afectará a todo el que esté empadronado en este municipio.

Artículo 3. — Animales potencialmente peligrosos

Se consideran animales potencialmente peligrosos a efectos de esta Ordenanza, y de acuerdo con el artículo 2 de la Ley 50/1999, de 23 de diciembre, sobre Régimen Jurídico de la Tenencia de Animales Potencialmente Peligrosos y el artículo 10 del Decreto 101/2004, de 1 de junio:

- Basa animaliak izanik, era berean etxe- edo laguntza-abe-reak diranak eta, euki daikien oldarkortasuna kontuan hartu barik, personei edo beste animalia batzuei heriotza edo zauriak eta gauzei gatx-kalteak eragiteko gaitasuna daukien espezie edo arrazaren batekoak diranak.
- Batez ere, honako arraza honeetako txakurrak, edo hone-ekaz gurutzatutakoak:
 - a) Pit Bull Terrier.
 - b) Staffordshire Bull Terrier.
 - c) American Staffordshire Terrier.
 - d) Rottweiler.
 - e) Dobatzakur argentinarra.
 - f) Fila brasildarra.
 - g) Tosa Inu.
 - h) Akita Inu.
- II. eranskinean azaltzen diran ezaugarri guztiakaz edo gehie-nakaz bat datozenak, salbu eta erkidegoko edo, hala bajagoko, estaduko legeriaren arabera modu ofizialean onar-tutako zentroetan egiaztatu eta hezitako gida-txakur edo laguntza-txakurrak badira edota baldintza horreek beteteko heziketa fasean dagozan txakurrak. II. eranskinaren ezau-garriak honako honeek dira:
 - a) Gihartsua, itxura boteretsuduna, indartsua, itxura atleti-koduna eta bizkorra; kementsua eta gogortasun handikoa.
 - b) Izakera berezi eta ausardia handikoa.
 - c) Ule laburra.
 - d) 60 eta 80 zentimetro arteko perimetro torazikoa; 50 eta 70 zentimetro arteko soinkurutzeko altuera eta 20 kilo baino gehiagoko pisua.
 - e) Buru handikoa, kuboidea eta indartsua; garezur zabala eta handikoa; masaila gihartsu eta puztuduna. Masailezur handi eta indartsuduna; aho indartsu, zabal eta sakonduna.
 - f) Sama zabal, gihartsu eta laburduna.
 - g) Bular sendo, zabal, handi eta sakonduna; saihets kako-tuak, eta bizkar gihartsu eta laburduna.
 - h) Aurreko hankak paraleloak, zuzenak eta indartsuak; atzeko hankak oso gihartsuak; hankak nahikoa luzeak, angelu ertaina osotzen dabena.
 - Aurreko ataletan sartzen ez badira be, agiriko izakera oldar-korra daukienak edo beste persona edo beste animalia batzuei inoz eraso egin deutsienak. Txakurra zentsatuta dagoan udalerriko agintari eskudunaren erabagiz aitortuko da animalia arriskutsua izan daiteken. Aitorpena egiteko, ofi-zioz edo salaketa edo jakinarazpen bat jaso ostean, eris-pide objektiboak erabiliko dira, albaitari batek (ofiziala, edo udaleko agintariak izendatua edo gaitua) txostena egin eta gero.

Kontuan hartu beharra dago beharrezko espedientea izapidetu beharko dala animalia bat arriskutsutzat jo baino lehenago haren izakeragaitik edo erasoan aurrerakariagaitik; espediente horretan honako honeek agertuko dira:

 - Udal organo eskudunak albaitari ofizial bateri (gaitua edo izendatua) eskatuko deutso, txosten bat egin daian ani-maliaren arriskugarritasuna baloratuz. Txosten horren kos-tua eskatzailearen kontura izango da; hori ez da oztopo izango animalia jabea inputatzeko, animalia arriskutsutzat jotzen bada.
 - Izapidea eraso batengaitik egin bada, aurreko txostena oso-tzeko, erasoaren ganeko beste txosten bat egingo da; bigar-ren agiri horretan baloratuko da zeintzuk izan diran eraso-aren zirkunstantziak, beti be agintaritzak eskudunak ezarritako jarraibideetan eta prozeduretan oinarrituz.
 - Animalia titularri beharrezko jakinarazpena egitea, ego-kitzat jotzen dauzen alegazioak egin daizan 10 eguneko epean.
- Los que perteneciendo a la fauna salvaje, siendo utilizados como animales domésticos o de compañía, con indepen-dencia de su agresividad, pertenecen a especies o razas que tengan capacidad de causar la muerte o lesiones a las personas o a otros animales y daños en las cosas.
- En particular, los perros que pertenecen a estas razas o que están cruzados:
 - a) Pit Bull Terrier.
 - b) Staffordshire Bull Terrier.
 - c) American Staffordshire Terrier.
 - d) Rottweiler.
 - e) Dogo Argentino.
 - f) Fila Brasileiro.
 - g) Tosa Inu.
 - h) Akita Inu.
- Aquellos cuyas características se correspondan con todas o la mayoría de las que figuran en el anexo II, salvo que se trate de perros-guía o de perros de asistencia acredi-tados y adiestrados en centros oficialmente reconocidos, conforme a la legislación autonómica o, en su caso, esta-tal, así como aquellos perros que se encuentren en fase de instrucción para adquirir esa condición. Las caracterís-ticas del anexo II son las siguientes:
 - a) Fuerte musculatura, aspecto poderoso, robusto, configu-ración atlética, agilidad, vigor y resistencia.
 - b) Marcado carácter y gran valor.
 - c) Pelo corto.
 - d) Perímetro torácico comprendido entre 60 y 80 centíme-tros, altura a la cruz entre 50 y 70 centímetros y peso superior a 20 Kg.
 - e) Cabeza voluminosa, cuboide, robusta, con cráneo ancho y grande y mejillas musculosas y abombadas. Mandíbulas gran-des y fuertes, boca robusta, ancha y profunda.
 - f) Cuello ancho, musculoso y corto.
 - g) Pecho macizo, ancho, grande, profundo, costillas arque-adas y lomo musculoso y corto.
 - h) Extremidades anteriores paralelas, rectas y robustas y extre-midades posteriores muy musculosas, con patas relativamente lar-gas formando un ángulo moderado.
 - Los que, no encontrándose en ninguno de los apartados anteriores, manifiesten un carácter marcadamente agresivo o hayan protagonizado agresiones a personas o a otros ani-males. La potencial peligrosidad se declarará por resolu-ción de la autoridad competente del municipio donde esté censado el perro. Esta se hará atendiendo a criterios obje-tivos, bien de oficio o bien tras haber sido objeto de una noti-ficación o una denuncia, previo informe del veterinario ofi-cial, habilitado o designado por el respectivo ayuntamiento.

Téngase en cuenta que antes de catalogar un animal como potencialmente peligroso sobre la base de su carácter o antece-dente de agresiones, deberá instruirse el correspondiente expe-diente que incluirá lo siguiente:

 - El órgano municipal competente requerirá a un veterinario oficial, habilitado o designado para que realice un informe que valore la potencial peligrosidad del animal. El coste de dicho informe correrá a cargo del solicitante, sin perjuicio de que pueda ser imputado al propietario del animal en el caso de que el animal se declare como potencialmente peli-groso.
 - En el caso de que la instrucción venga motivada por una agresión, el informe anterior, deberá ser complementado con un informe sobre la agresión que valorará las cir-cunstancias en que se produjo la misma en base a ins-trucciones y procedimientos establecidos por la autoridad competente al respecto.
 - Comunicación al titular del animal al inicio del expediente, para que pueda realizar las alegaciones que estime opor-tunas en el plazo de 10 días.

4. artikulua. — Udal lizentzia

Arriskutsua izan daiteken animalia baten jaubea izan gura dabenez guztiek (aurreko artikuluan zerrendatutako arraza batekoa izan, ala bertan adierazotako ezaugarri guztiak edo gehienak eduki) beharrezko udal lizentzia eskatu beharko du aldeaz aurretik.

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak eukiteko baimena lortzeko udal tasa bat ordaindu beharko da. Zenbatekoa kasuan kasuko zerga ordenantzak finkatuko dau.

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak txakur arriskutsuen tipologiaren barruan badagoz, baimen eskaera honelakoa izango da: Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak eukiteari buruzko bagilaren 1eko 101/2004 Dekretuaren IV. eranskinean jasotako eredu ofizialaren arabera, hain zuzen be.

5. artikulua. — Lizentzia emoteko organo eskuduna

Korporazinoko alkate-udalburua izango da eskumena daukana arriskutsuak izan daitezkeen animaliak eukiteko lizentziak emoteko, beti be Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua betez.

6. artikulua. — Lizentzia eskuratzeko betekizunak

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak eukiteko lizentzia eskuratu ahal izateko, honako betekizun honeek beteten dirala egiaztatatu beharko da:

- Edadez nagusia izatea.
- Hilketa, lesio edo torturengatik, askatasunaren edo osotasun moralaren, sexu-askatasunaren eta osasun publikoaren aurka egiteagaitiko, edo talde armatu edo narkotrafikatzaile batez loturea izateagaitiko delituakaitik kondenatua izan ez izana, eta ebazpen judicial batek arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak eukiteko eskubidea kenduta ez eukitea. [Justizia Ministerioak emon beharreko zigor aurrekariaren ganeko ziurtagiri baten bitartez egiaztatuko da].
- Gaitasun psikologiko eta fisikoaren egiaztatzea.
- Animaliak hirugarren bateri egin ahal deutzozan gatx-kalteakaitik erantzukizun zibileko aseguru eginda dagoala ziurztatzen dauen egiaztatzea (gitxienez 120.000 eurokoa).
- Arau-hauste larri edo oso larri bat egiteagaitik zigortua ez izana, beti be abenduaren 23ko 50/1999 Legeak 13.3 artikuluan ezarritako zigor osagarrietariko bat dala eta.

7. artikulua. — Epea

Lizentzia bost urterako emongo da, eta behin epe hori igaro ostean, prozedura bera erabilita, lizentzia bost urterik behin barritu beharko da.

Baimena indar barik geratuko da titularrak ha emoteko beharrezko betekizunak beteten ez badauz.

Lizentzian adierazotako datuen bat aldatzen bada, titularrak horren barri emon beharko deutso alkateari; horretarako hamabost egun eukiko dauz, beti be aldaketea izan danetik zenbatzen hasita.

8. artikulua. — Arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal erregistroa

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak eukiteko lizentziaren titularrak derrigorren egin beharko dau arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal erroldan izena emoteko eskabidea, beti be baimena eskuratu osteko 15 egunetan. Honako datu honeek adierazoko beharko dauz:

- Animalia baten jaubearen datu personalak.
- Identifikazio kodea.
- Animalia baten ezaugarriak.
- Animalia baten ohiko bizilekua.
- Zein helburutarako eukiko dan animalia.
- Gizakiakaz bizitzeko.
- Beste zeozertarako, esaterako zaintzarako, babeserako...
- Baimen zenbakia, noz eta nozko arte emon dan, eta emon eban organoa.

Artículo 4. — Licencia municipal

Toda persona que quiera ser propietario de un animal potencialmente peligroso, tanto de un perro de una de las razas referidas en el artículo anterior como de un perro con todas o la mayoría de las características enumeradas en el citado precepto, deberá solicitar previamente una licencia.

La obtención de una Licencia para la Tenencia de Animales Potencialmente Peligrosos devengará una tasa municipal. La cuantía quedará fijada en su correspondiente Ordenanza fiscal.

En el caso de que los animales potencialmente peligrosos correspondan a la tipología de perros peligrosos, la solicitud de la licencia se presentará de conformidad con el modelo oficial recogido en el Anexo IV del Decreto 101/2004, de 1 de junio, sobre Tenencia de Animales de la Especie Canina en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 5. — Órgano emisor de licencia

El Alcalde-Presidente de la Corporación será el competente para poder otorgar las Licencias para la Tenencia de Animales Potencialmente Peligrosos, en cumplimiento del artículo 21.1.q) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Artículo 6. — Requisitos para la obtención de licencia

Para obtener la Licencia para la Tenencia de Animales Potencialmente Peligrosos se necesita acreditar los siguientes requisitos:

- Ser mayor de edad.
- No haber sido condenado por delitos de homicidio, lesiones, torturas, contra la libertad sexual y la salud pública, asociación con banda armada o de narcotráfico, así como no estar privado por Resolución Judicial del derecho a la tenencia de animales potencialmente peligrosos. [Se acreditará mediante un certificado de antecedentes penales expedido por el Ministerio de Justicia].
- Certificado de aptitud psicológica y física.
- Acreditación de haber formalizado un seguro de responsabilidad civil por daños a terceros que puedan ser causados por sus animales, por una cuantía mínima de 120 000 euros.
- No haber sido sancionado por infracciones graves o muy graves con alguna de las sanciones accesorias de las recogidas en el artículo 13.3 de la Ley 50/1999, de 23 de diciembre.

Artículo 7. — Plazo

La Licencia tendrá un período de duración de cinco años, tras el cual deberá ser renovada por períodos sucesivos de igual duración y por el mismo procedimiento.

La Licencia perderá su vigencia en el momento en que su titular deje de cumplir con los requisitos necesarios para que le sea concedida.

Cualquier variación de los datos que figuran en la Licencia deberá ser comunicada por su titular, en el plazo de 15 días desde que se produzca, al Alcalde.

Artículo 8. — Registro Municipal de animales potencialmente peligrosos

El titular de la Licencia de Tenencia de Animales Potencialmente Peligrosos tiene la obligación de solicitar la inscripción en el Registro Municipal dentro de los 15 días siguientes a la fecha en que se ha obtenido la correspondiente Licencia, debiendo aportar los siguientes datos:

- Los datos personales del tenedor.
- Código de Identificación.
- Las características del animal.
- El lugar habitual de residencia del animal.
- El destino del animal, a:
- Convivir con los seres humanos.
- Finalidad distinta, por ejemplo, la guarda, protección...
- Número de licencia, fecha de emisión y caducidad, órgano que la otorgó.

Udalak datuak bialduko deutsoz Euskal Autonomia Erkidegoko Animalien Identifikaziorako Erregistro Orokorriari, jagokan atalari, hain zuzen be. Txakur arriskutsuen kasuan, Txakur arriskutsuen atalari, bost eguneko epearen barruan.

9. artikulua.— *Identifikazioa*

Arriskutsuak izan daitezkezan txakurrak daukiezanek, horreen jaubeek eta hazleek animalia mikrotxip baten bidez identifikatu beharko dabe derrigorrean, eta mikrotxipa animalari ipini beharko jako. Hain zuzen, txakurraren lepoaren ezker aldean eta albaitari ofizialen batek, foru edo udal albaitariak, edo ondorio horreetarako gaitutako albaitari pribatuak ipinita.

Animalia identifikatukeran, albaitari jarduleak Txakurren Txarrel Ofiziala eta animalia-identifikaziorako agiri bat beteko dauz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean erregistratzeko eskabidea egingo dau.

10. artikulua.— *Animaliak daukiezanen betebeharrak*

- Lizentziaren titularrak, baimena emon osteko hamabost egunetan, arriskutsuak izan daitezkezan animalien udal erroldan izena emoteko eskabidea egin beharko dau.
- Arriskutsua izan daiteken animalia-eremuko leku edo gune publikoaren batean dagoanean, animalia eroran eta kontrolatzen dauden pertsonak administrazio lizentzia eroran beharko dau aldean, bai eta animalia udal erroldan (arriskutsuak izan daitezkezan animalien udal erroldan) izena emonda dagoala ziurtatzen dauden egiaztagiria be.
- Arriskutsuak izan daitezkezan txakurrek muturrekoa eroran beharko dabe derrigorrean leku edo gune publikoetan; muturrekoa, beti be, animalia bakotxaren ezaugarrien arabera izango da.
- Kateaz edo ugalez eroran eta kontrolatu beharko dira; gehinez metro bi luze dan katea edo ugala izango da, luzatu ezin daitekena. Ganera, pertsona bakotxak ezin izango dau horrelako txakur bat baino gehiago eroran.
- Animalia lotuta egon beharko da finka, basetxe, txalet, patio edo beste lekuren batean badago, beti be azalera, altuera eta itxitura egokia daukan guneren batean ez badago, aita-tutako leku horreetara joan edo hurreratzen diran personak edo animaliak babesteko.
- Animalia ostu edo galdu ezker, titularrak horren barri emon beharko deutso arriskutsuak izan daitezkezan animalien udal erroldako arduradunari; horreetarako, gertaerak jakin ostean, berrogeita zortzi ordu eukiko dauz.
- Animalia, saldu, eskualdatu, lapurretatutako galdu, hil edo galdu ezker, horren barri eman beharko da udal erroldan.
- Arriskutsua izan daiteken animalia autonomia erkidego bate-tik bestera eroran ezker, hiru hilabeterako bada edo alda-ketea iraunkorra bada, udal erroldetan behar diran inskripzioak egin beharko dauz jaubeak.
- Animalia bakotxaren erregistro orrietan animalientzako osasun egiaztagiria jaso beharko da; eskumena daukan agintariak emon beharko dau egiaztagiri hori, eta, ganera, urtean-urtean ziurtatu beharko dau animaliak ez daukala bereziki arriskutsua izatea eragin daiken gaixotasun edo arazorik.
- Galarazota dago txakurren gorotzak ixtea bide eta plaza publikoetan, umeentzako parkeetan, bai eta, oro har, apaingarri-rako edota personeren igarobiderako diran guneetan be.
- Agintari eskudunek eskatutako datuak edo informazioa emon beharko dabez.

11. artikulua.— *Txakurrak eukiteari mugak ezartzea*

Oro har eta arrazoi etologikoakaitik, bakar-bakarrik euki ahal izango da urtebete baino gehiagoko txakur bat etxebizitza bako-txeko, bai Jabego Horizontalaren legea bete beharreko eraikin kolektiboetan, zein balkoi, garaje, pabilioi, soto, estalki, lorategi edo uriko beste lokal edo lurretan.

El Ayuntamiento remitirá los datos al REGIA (Registro General de Identificación de Animales de la Comunidad Autónoma del País Vasco), a la Sección correspondiente. En el caso de Perros Peligrosos a la Sección de Perros Peligrosos en el plazo de cinco días.

Artículo 9.— *Identificación*

En el caso de perros potencialmente peligrosos, los propietarios, criadores o tenedores tendrán la obligación de identificar el animal mediante un microchip, que deberá implantarse al animal. En concreto en la parte lateral izquierda del cuello del perro, y deberá implantarse por un veterinario oficial, foral o municipal, o por veterinario privado habilitado a estos efectos.

En el momento de la identificación del animal, el veterinario actuante rellenará la Cartilla Oficial Canina y un documento de identificación y solicitud de inscripción en el Registro General de Identificación de Animales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 10.— *Obligaciones del tenedor*

- El titular de la Licencia tiene la obligación de solicitar la inscripción en el Registro Municipal de Animales Potencialmente Peligrosos dentro de los quince días siguientes a la fecha en que haya obtenido la correspondiente Licencia.
- La presencia de animales potencialmente peligrosos en lugares o espacios públicos exigirá que la persona que los conduzca y controle lleve consigo la Licencia administrativa y la certificación acreditativa de la inscripción del animal en el Registro Municipal de Animales Potencialmente Peligrosos.
- Los perros potencialmente peligrosos deberán llevar obligatoriamente bozal, apropiado para la tipología racial de cada animal, en lugares y espacios públicos.
- Deberán ser conducidos y controlados con cadena o correa no extensible de menos de dos metros, sin que pueda llevarse más de uno de estos perros por persona.
- Si el animal se encuentra en una finca, casa de campo, chalé, parcela, terraza, patio o cualquier otro lugar determinado, deberán estar atados, a no ser que disponga de hábitculo con la superficie, altura y adecuado cerramiento, para proteger a las personas o animales que acceden o se acercan a estos lugares.
- La sustracción o pérdida del animal deberá ser comunicada por su titular al responsable del Registro Municipal de Animales Potencialmente Peligrosos, en el plazo de 48 horas desde que tenga conocimiento de esos hechos.
- La venta, traspaso, donación, robo, muerte o pérdida del animal deberá comunicarse al Registro Municipal.
- Por el traslado de un animal potencialmente peligroso de una Comunidad Autónoma a otra, si es por un período superior a tres meses o de manera permanente, deberá efectuar las inscripciones oportunas en los Registros Municipales.
- En las hojas registrales de cada animal se hará constar igualmente el certificado de sanidad animal expedido por la Autoridad competente que acredite, anualmente, la inexistencia de enfermedades o trastornos que lo hagan especialmente peligroso.
- Queda prohibido abandonar las deyecciones de los perros en vías y plazas públicas, parques infantiles, y en general, en cualquier lugar destinado al ornato y/o tránsito de personas.
- Deberán suministrar datos o facilitar la información requerida por la autoridad competente.

Artículo 11.— *Limitaciones de la tenencia de perros*

Con carácter general y por razones etológicas, únicamente se podrá alojar un perro mayor de un año por cada 40 metros cuadrados, tanto en los inmuebles colectivos sometidos a la Ley de Propiedad Horizontal, como balcones, garajes, pabellones, sótanos, azoteas, jardines o cualquier otro local o terreno urbano.

Beren-beregi galarazota dagoz honako jarrera honeek:

- Elikagaiak ekoiztu, saldu, batu, garraiatu edo manipulatzeko lokal edo ibilgailuetan txakurrak sartzea edo bertan eukitea.
- Jendaurreko ikuskizunak egiteko lokaletan txakurrak sartzea edo eukitea, bai eta igerileku publikoetan eta osasunbideko lokaletan eta antzekoetan be, beren-beregiko arauk galarazoten dabenean.
- Hondartzetan eta inguruko eremuetan sartzea.
- Txakurrak komunitadearen leku pribatuetara sartu eta egoiteari jagokonez (kultur alkarteak, aisialdi alkarteak eta auzo alkarteen erabilera komuneko guneak adibidez), entitate horreetako arauen arabera jokatu beharko da.

12. artikulua. — Arau hausteak eta zehapenak

Ordenantza honen ondorioetarako, oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke arau-hausteak. Udalak, bere eskumenak baliatuz, zigor espedienteari hasikerea emongo deutso honako arau-hauste baten barri izan ezker (bere kabuz edo salaketa bidez jakinda): Arriskutsuak izan daitezkezen Animalien Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen 13. artikuluan araututakoak. Abenduaren 23ko 50/1999 Legearen 13.5 artikuluan ezarritako zigorrak aplikatuko dira.

Era berean, oro har txakurrei jagokenez, arau-hausteei aplikagarri jaken zehazpen erregimena izango da Animaliak Babesten dauzen urriaren 29ko 6/1993 Legearen V. tituluaren finkatutakoa, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak eukiteari buruzko 101/2004 Dekretuaren 28. artikulua araberakoa.

13. artikulua. — Zehatzeko prozedura

Zehatzeko prozedura honako printzipio honeei egokituko jake: Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen zemendiaren 26ko 30/1992 Legean, zehatzeko ahalmena erabilteko prozeduraren erregelamendua onartzen dauen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoan zehapen ahalmenari buruzko zezeilaren 20ko 2/1998 Legean araututako zehapen ahalmenaren printzipioei, hain zuzen be.

Honako organo honeek eukiko dabe zigortzeko ahalmena:

- Animaliak Babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legeak ezarritako zehapenak zigortzeko organo eskudunak xedapen horren 32. artikuluan ezarritakoak izango dira.
- Honeek izango dira Arriskutsuak izan daitezkezen Animalien Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legean jasotako arau-hausteak zigortzeko organo aginpidedunak:
 - a) Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila, trebatzeko gaitasunaren egiaztagiriagaz eta trebatzaileak prestatzeko ikastaroen homologazioagaz zerikusia daukien arau-hausteeetan.
 - b) Udal agintariak, abenduaren 23ko 50/1999 Legearen ganerako arau-hausteeetan. Eskumen-lurraldetik kanpo izan ezker, eskumena Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak eukiko dau.

(II-6495)

Arrankudiagako Udala

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zerga araupetzen duen Udal Ordenantza Fiskalaren aldaketaren behin behineko onarpena.

Arrankudiagako Udalak, 2015eko azaroaren 12an izandako ohiko bileran, 2015eko Zirkulazio-Ibilgailuen zergaren aldaketaren behin-behingo onartzea erabaki zuen.

Quedan expresamente prohibidas las siguientes conductas:

- La entrada y permanencia de perros en locales o vehículos destinados a la fabricación, venta, almacenamiento, transporte y manipulación de alimentos.
- La entrada y permanencia de perros en aquellos locales en los que se celebren espectáculos públicos, así como en las piscinas públicas y locales sanitarios y similares cuyas normas específicas los prohíben.
- La entrada en playas y zonas anexas.
- La entrada y permanencia de los perros en lugares comunitarios privados, tales como sociedades culturales, recreativas, zona de uso común de comunidades de vecinos, estará sujeto a las normas que rijan en dichas entidades.

Artículo 12. — Infracciones y sanciones

A efectos de la presente Ordenanza, las infracciones se clasifican en muy graves, graves y leves. El conocimiento por parte del Ayuntamiento, ya sea de oficio o por denuncia, de la comisión de alguna de las infracciones reguladas en el artículo 13 de la Ley 50/1999, de 23 de diciembre, sobre el Régimen Jurídico de la Tenencia de Animales Potencialmente Peligrosos, en el ámbito de sus competencias, avalará el inicio del expediente sancionador. Serán de aplicación las sanciones del artículo 13.5 de la Ley 50/1999, de 23 de diciembre.

Asimismo, respecto de los perros en general, el régimen sancionador aplicable a las infracciones será el establecido en el Título V de la Ley 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales, de acuerdo con el artículo 28 del Decreto 101/2004, de Tenencia de Animales de la Especie Canina.

Artículo 13. — Procedimiento sancionador

El procedimiento sancionador se ajustará a los principios de la potestad sancionadora regulados en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en el Decreto 1398/1993, de 4 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento para el ejercicio de la potestad sancionadora y en la Ley 2/1998, de 20 de febrero de la potestad sancionadora de las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El ejercicio de la potestad sancionadora corresponderá a los siguientes órganos:

- Los órganos competentes para sancionar las infracciones previstas en la Ley 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los animales serán los establecidos en el artículo 32 de la citada disposición.
- Los órganos competentes para sancionar las infracciones previstas en la Ley 50/1999, de 23 de diciembre, sobre el Régimen Jurídico de la Tenencia de Animales Potencialmente Peligrosos serán los siguientes:
 - a) El Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco para las infracciones relativas, al certificado de capacitación para el adiestramiento y a la homologación de los cursos para la formación de los adiestradores.
 - b) La autoridad municipal en las restantes infracciones de la Ley 50/1999, de 23 de diciembre. Si excede del ámbito territorial, la competencia recaerá en el Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

(II-6495)

Ayuntamiento de Arrankudiaga

Aprobación inicial de la modificación de la Ordenanza Fiscal Municipal Reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.

El Ayuntamiento Pleno de Arrankudiaga en la Sesión Ordinaria celebrada el 12 de noviembre de 2015, acordó con carácter provisional aprobar la modificación de la Ordenanza Fiscal Municipal Reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.